

FUNTSEZKO SOZIETATEAK

Gure komertzioa enpresa minorista bat da, gure kontsumitzaileekin harremanetan gaudelako. Hau dela eta, bezeroak gure enpresaren funtzionamenendurako ezinbestekoak dira. Behar ditugun bezeroak bitxikeriak gustoko dituztenak dira, gure dendako produktuak erosteko prest egongo direlako.

Gure proiektua funtziona dezan, **bezeroak** ez dira behar dugun guztia. **Hornitzaileak eta garraio enpresak** parte handia hartzen dute gure enpresa aurrera eraman ahal izateko. Saltokian produktu bitxiak saltzen ditugunez, ondasunak lortzeko beste enprekin elkarlanean aritu behar gara etengabe. Hornitzaile hautaketa handia izango dugu, konpania ezberdinetatik gure produktuak eskuratzeko. Produktuak arruntak ez direnez, hornitzaile ugariz abiatuko gara guztiak eskuratzeko. Gure lehiakideek erabiltzen dituzten hornitzaileen antzekoak izango dira. Hortaz, produktu sorta berdinak izango ditugu salgai, baina denda fisikoan.



Horretaz aparte, garraio enpresa batekin lan egitea funtsezkoa izango da gure enpresa aurrera eramateko. Garraio enpresa asko begiratu gero, Correosen zerbitzuak aukeratu dugu. Correos enpresa, garraiatzeko aukera hobereena da. Espainako ospetsuena da eta hortaz, ondo

etorriko zaigu enpresa honekin kolaboratzea. Garraio enpresa honek, “Correos Express” funtzioa du bidalketak egiteko orduan. Hau da, produktuak azkar bidaltzeko ahalemena du. Honek, onuragarria izan dezake gure enpresarako, itxaron denbora laburra izango da eta.

Laburbilduz, beste enpresekin aliantzak funtsezkoak dira gure enpresa aurrera eramateko. Hautatutako hornitzaileekin finkatu beharreko aliantza ezinbesteko da gure proiektuan behar dituen produktuak lortzeko, eta Correos garraio enpresaz baliatuko gara ondasunak gure saltokira ailegatzeko. Aliantza hauek garrantzitsuak dira guretzako, produktu guztiak azkar eta erraz eskuratu ahal izateko inolako arazorik gabe.